

Deskribapen orokorra

C proposamena Basauriko berdeguneen beharretik sortu da. Kontuan hartuta trenbideen hondartza beti izan dela oztopoa auzoa fisikoki batzeko, Erronkari Ibarra kalearen eta eraikitzen ari diren bizitegi-eraikin berrien artean irekitako zelai berde handi bat planteatzen da, jende guztiak erabiltzeko eta gozatzeko,

Lursaila ahalik eta berdegune gehienekin betetzea proposatzen da. Hau da, ahalik eta eremu lau eta lorategi handiena sortzea, eta zuhaitzez estaltzea. Horrela, era guztietako jardueretarako espazio ezin hobeaz lortzen da, aire zabaleko kiroletik, bilera informalak edota piknikak egiteko gune gisa. Era berean, zuhaitz mota desberdinak kokatzeak hainbat ingurune eta, batez ere, itzala lortzeko balioko du udako garaietan. Horrela, babesleku klimatiko bat sortzen da (gehiegizko berotik babesteko ingurumen-baldintza onak eskaintzen dituen hirigunea). Azken batean, proposamenaren asmoa Basaurin baso bat sortzea da.

Zabalera desberdineko bideek berdegunea zeharkatzen dute (2,00 - 3,50 m), haien garrantziaren arabera. Bideek parkearen barruan egin daitezkeen ibilbide guztiak bateratzen dituzte, eta parkeak norabide guztietan dituen sarbideak lotuz.

Parkearen eta Agirre Lehendakaria eta Autonomia kaleen bidegurutzetik dagoen sarbidearen arteko kota-aldea gaintzeko, eskailera handi bat diseinatu da, harmaila giza. Horrela, anfiteatro txiki bat lortzen da, parkeko plaza izeneko, hor antola daitezkeen antzoki txikiak edo emanaldiak eserita ikusteko. Lorategirik gabeko eremu handi bat da, etxebizitzaren ondoan, 450 m2 ingurukoa.

Azpimarratzekoa da proposamen guztiek berekin dakartela Lehendakari Aguirre kalea birmoldatzea, Autonomia eta Kareaga Behekoa kaleen artean. Kale horretan zehar dauden lubakiak kenduko dira, etxebizitzetatik parke berrirako erabateko iragazkortasuna ahalbidetuz. Horretarako, trenbide azpiko pasabidetik ibilgailuen igaropena ezabatuko da oinezkoen erabilera soilik baimentzeko. Gainera, oinezkoentzako pasabide horrek sarbide egoki eta irisgarria geltokiko atari berrira ahalbidetzen du (igogailu berri baten bitartez). Bestalde, Bidearte eta Errioxa kaleak lotzea lortu da, Lehendakari Aguirre kaleko galtzada kale horien eta Kareaga behekoa kalearen artean espaloi kotarekin berdindu delako. Horrela, ibilgailuentzako pasabideak eragiten duen auzo horien arteko arrakala konpontzen da kalitate handiagoko hiri-espazioak lortuz.

kontzeptua



basoa

- Iz.
1. Batez ere zuhaitzez betetako lurraldea; gizakiak lantzen ez duen eremua.



bidea

1. Iz. Lur zerrenda, bertatik ibiltzeko prestatua dena.

Ik. errepide; burdinbide; gurdibide; zeharbide.
2. iz. Toki batetik beste batera joateko igaro behar diren tokien segida.
3. iz. Bi lekuren arteko bide tartea.

Ik. distantzia.

kontzeptu-krokisa



- [1] Bidebieta ADIF geltokia
[2] Bizkotxalde parkea
[3] Azoka Plaza
[4] Madrid Kaleko plaza
[5] Arcelor

Basoa

C PROPOSAMENA

POZOKOETXE PARKEA



aire-bista

02

Basoa
C PROPOSAMENA
POZOKOETXE PARKEA



Oinezkoen ikuspuntua